



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko urtarrilaren 2a

1. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, gizarteratze-errenta arautzen duena. Artikuluei urkeztutako zuzenketak (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, gizarteratze-errenta arautzen duena.

ARTIKULUEI URKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, gizarteratze-errenta arautzen duen Foru Lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2011ko abenduaren 2ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

1. artikulua. Oinarrizko errentaren kontzeptua

Oinarrizko errenta hilabetero kobratzen den prestazio ekonomiko bat da, zuzendua dagoena diru-sarrerarik ez duten edo lanbide arteko gutxieneko soldataren mailara iristen ez diren Nafarroako Foru Komunitateko familia-unitateei.

Oinarrizko errenta beste edozein prestazio ekonomikoren prestazio osagarritzat joko da.

Zioak: Gizarte politikak eta, bereziki, gizarteratze edo oinarrizko errentak duten helburua da pertsonen arreta eskaintzea, bereziki elkartasunaren eta berdintasunaren ikuspegitik, eta arreta pertsona guztiei eskaintzea, salbuespenik gabe. Hori dela eta, beharrezkoa da herritarren unibertsaltasunaren ikuspegitik egitea.

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua kentzeko zuzenketa.

3. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, 1.a, gehitzeko zuzenketa.

“1. artikulua. Foru lege honen xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko eremuan Eskubide Sozialen Gutuna aldarrikatzea, egoitza Nafarroan duten eta Nafarroan erroldatuta dauden herritar guztiei lan bat segurtatuko diena, eta oinarrizko errenta eskuratzeko ere bai, baldin eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legean ezarritako baldintzak betetzen badiuzte, aukera izan dezaten, horrela, herritartasun-erregulazioekin bere osotasunean baliatuzeko”

4. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua kentzeko zuzenketa. Hona hemen ordezko testua:

2. artikulua. Oinarrizko errentaren helburua

Lege honen helburua da Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren familia-unitate baliabide-gabeei eta/edo bazterketa sozialeko egoeran daudenei garantizatzea, batetik, beren oinarrizko beharrak aseta izateko eskubidea eta, bestetik, unitateon gizarteratzea sustatzea.

Zioak: Gizarte politikak eta, bereziki, gizarteratze edo oinarrizko errentak duten helburua da pertsonen arreta eskaintzea, bereziki elkartasunaren eta berdintasunaren ikuspegitik, eta arreta pertsona guztiei eskaintzea, salbuespenik gabe. Hori dela eta, beharrezkoa da herritarren unibertsaltasunaren ikuspegitik egitea.

5. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Prestazioaren helburua eta definizioa.

Testu berria:

1. artikulua.- Definizioa.

1.- Diru-sarrerak bermatzeko errenta aldizkako prestazio ekonomiko bat da, oinarrizko premiei lotutako gastuetarako eta gizarteratzeko eta/edo laneratzeko prozesu batetik eratorritako gastuetarako bideratzen dena, eta gastu horiei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez duten bizikidetzak unitateetan integraturik dauden pertsonen zuzendua.

Aurreko guztiaren ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

a) Oinarrizko beharriari loturiko gastuak dira bizirauteko oinarrizko gastuak.

b) Gizarteratze- eta/edo laneratzeko prozesu batetik eratorritako gastuak dira prozesu hori egiazki gauzatzeko ezinbestekoak direnak.

Zioak: Diru-sarrerak bermatzeko errentaren definizioa ezartzea eta dituen bi alderdiak modu argian desberdintzea; hots, batetik, jasotzaileen eta beren familien oinarrizko beharriaren ezartzea xede duen bizirauteko prestazio ekonomikoa eta, bestetik, gizarteratzea edo laneratzeko xede duten era desberdinetako mekanismoak eta irizpideak ezartzea.

6. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO**
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA

1. artikuluari aurkeztutako zuzenketa.

I. kapituluko 1. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu eta honela geldituko da:

I. kapitulua. Xedapen orokorrak 1. artikulua.

“1. Foru lege honen xedea da aldizkako prestazio ekonomiko bat, gizarteratze-errenta izenekoa, arautzea; prestazioaren helburua da baliabide ekonomikorik ez duten familia-unitateen oinarrizko beharrei erantzutea eta gizarte-bazterketako egoeran dauden familia-unitateak gizarteratzen laguntzea.”

Zioak: Foru legeak, praktikan, gizarteratze-errenta berritik kanpo uzten ditu langabezia dauden eta prestazio nahiz sorospen guztiak ahituta

dituzten pertsonak. Parlamentu-talde Popularrak aurkeztutako osoko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

7. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat, 1. bis, gehitzeko zuzenketa-izaera eta ezaugarriak.

1. bis artikulua. Izaera eta ezaugarriak.

1.- Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskubide subjektiboa da prestazioa eskuratzeko –kasu bakoitzean aplikatzeko zaien modalitatean prestazioa eskuratzeko– berariaz araututako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztientzat.

2.- Subsidiarioa izango da, edo, hala badagokio, osagarria ere bai, alegia: indarrean dagoen legedian aurreikusitako beste baliabide edo prestazio ekonomiko batzuk osatuko dituzte, titularrari edo bizikidetzak unitateko edozein kideri egoki lekizkiokeenak, eta horren ondorioz, ezin da osatu beste edozein motatako prestazio edo laguntzekin, edozein modalitateetan. Antzeko izaera duten laguntzak baldin badaude horiek dirusarreratzen hartuko dira, eta horren ondorioz zenbatu egingo dira diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa zehazteko garaian.

3.- Helburu jakin baterako da, eta bizirauteko oinarrizko premiak ezartzeko bakarrik aplikatu behar da, edo bestela, gizarteratzeko eta/edo laneratzeko prozesu batetik eratorritako gastuak ezartzeko.

4.- Transferiezina da.

Zioak: Diru-sarrerak bermatzeko errentaren kontzeptua zehaztea eta zabaltzea haren izaerari eta ezaugarriari dagokienez, eta profil egokia eta berekia ematea, ez bakarrik haren definizioaren erreferentzia berariazkoa eginez, baizik eta eskubide subjektibo gisa egituratuz ere.

8. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua kentzeko zuzenketa.

9. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bat, 2.a, gehitzeko zuzenketa.

“2. artikulua: Foru lege hau iradoki duten printzipioak.

Herritartasun eskubide unibertsalak berrestea lan merkaturako sarbidea itxirik duten pertsona guztientzat, behar den diru-sarrerarik ez baitute besteek dituzten eskubide berekin bizitza duin bat izateko, kulturara iristeko, eta etxebizitza, zerbitzuak, hezkuntza, osasuna eta gizartean integrazio osoa izateko ere.

Gizartearen produktutik herritar bakoitzari dagokion zatia izateko eskubidea benetan aitortzea, bila ibili arren lanik aurkitzen ez dutenentzat oinarritzko errenta bat emanez.

Lanaldia banatzea lan bila dabiltzanen artean, pertsona eta talde sozialen arteko elkartasun eta berdintasun printzipio unibertsalen izenean, eta herritartasun-eskubideak inplikatzeko duelako nork bere lanarekin laguntzea gizarte osoak ongizatea izan dezan.”

10. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua aldatzeko zuzenketa.- Prestazioaren hartzaileak.

Testu berria:

2. artikulua.- Titularrak, onuradunak eta jasotzaileak.

1.- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren edozein modalitatearen titularrak izanen da, prestazioa bere izenean izapidetzen den eta hura ematen zaion eta prestaziorako eta, hala badagokio, Gizarteratze Hitzarmenerako eskubidea duen pertsona.

2.- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak izango dira, titularraren bizikidetzaren unitate bera osatzen duten pertsonak.

3.- Oro har, diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzailea izanen da haren titularrak den pertsona.

Zioak: Irizpide argi eta zalantzagabeak ezartzea “titular”, “onuradun” eta “jasotzaile” bezalako kontzeptuak zehazteko, eta urruntzea edo alde batera uztea kontzeptu horien eta pertsona horien

familien kide kopurua edo osakeraren arteko erlazioa.

11. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

I. kapituluko 2. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Esaldi bat gehituta, honela geldituko litzateke testua:

I. kapitulua Xedapen orokorrak. 2. artikulua.

“1. Prestazioaren hartzaileak izanen dira gizartean bazterturik dauden familia-unitateetako kideak edo, langabezia egonda, langabezia-prestazio edo -sorospenik jasotzeko eskubiderik ez duten kideak, baldin eta foru lege honetan eta bere garapenerako erregelamenduzko xedapenetan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte.”

Zioak: Foru legeak, praktikan, gizarteratze-errenta berriak kanpo uzten ditu langabezia dauden eta prestazio nahiz sorospen guztiak ahituta dituzten pertsonak. Parlamentu-talde Popularrak aurkeztutako osoko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

12. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

I. kapituluko 2. artikuluari 3. idatz-zatia gehitzea proposatzen da. Hona testua:

I. kapitulua Xedapen orokorrak. 2. artikulua.

“3. Gizarteratze-errentaren titularrak hiltzen bada, prestazioa jasotzen jarraituko du, subrogazioz, ezkontideak, bikotekideak edo oinarritzko gizarte-zerbitzuek txosten bidez erabakitzen duen pertsonak, espediente berririk abian jarri behar gabe, nahiz eta erabat ez bete gizarteratze-errenta jasotzeko baldintza guztiak. Onuradun berriak bi hilabeteko epea izanen du, gehienez ere, egoera berria erregularizatzeko.”

Zioak: Foru lege proiektuak ez du egoera hori jasotzen, eta komeni da gizarteratze-errenta berriaren gaineko testuan araututa uztea.

13. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Beste artikulua bat, 2. bis, gehitzeko zuzenketa.

2. bis artikulua.- Prestazioaren modalitateak.

1.- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren modalitateak bateraezinak dira haien artean, eta ondoak dira:

a) Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarritzko Errenta, laneko errentetatik datorren inolako diru-sarrerarik ez daukaten pertsonen zuzendua, baldin eta hilero jasotzen dutena ez bada iristen diru-sarreren jatorriaren eta bizikidetzaren unitateko kideen kopuruaren arabera dagokien Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarritzko Errentaren zenbatekora, eta, beraz, ez bada nahikoa beren gastuei (oinarritzko premiei lotutako gastuei zein gizarteratzeko edo laneratzeko prozesu baten ondorio diren gastuei) aurre egiteko.

b) Laneko Diru-sarrerak Osatzeko Errenta, zenbait bizikidetzaren unitateren diru-sarreren maila osatzera zuzendua. Bizikidetzaren unitate horietan, lanetik datozen diru-sarrerak eduki arren, hilero jasotzen dutena ez da iristen bizikidetzaren unitateko kideen kopuruaren arabera dagokien Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarritzko Errentaren zenbatekora, eta, beraz, hori ez da nahikoa beren gastuei (oinarritzko premiei lotutako gastuei zein gizarteratzeko eta/edo lan egoera-hobetzeko prozesu baten ondorio diren gastuei) aurre egiteko.

2.- Aurreko paragrafoan aurreikusitako diru-sarrerak bermatzeko errentaren bi modalitateetatik lehentasuna ematen zaio Laneko Diru-sarrerak Osatzeko Errentari, eta modalitate hori ez da soilik hautatu behar prestazioaren eskatzaileak laneko errentak dituen, baizik eta bizikidetzaren unitateko beste kide bat egoera horretan dagoenean ere.

Zioak: Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta Laneko Diru-sarrerak Osatzeko Errentaren bi modalitateak definitzea eta prestazioaren bi modalitateen arteko lehentasuna eta bateraezintasuna ezartzea.

14. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua kentzeko zuzenketa.

15. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

II. titulu berri bat gehitzeko zuzenketa, 3. artikulua berri bat izanen duena.

“II. TITULUA.

Lanaldiaren banaketarako politika

3. artikulua. Nafarroako administrazio publikoetako langileak.

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen 2000. urterako eta hurrengo urteetarako lan baldintzak sindikatu etako ordezkariekin negoziatzerakoan, Nafarroako Gobernuak lanaldia berrantolatu eta murrizteko behar diren neurriak aurkeztuko ditu Negoziazio Mahai Orokorrean, hartan azter daitezzen; neurri horiek 35 orduko lan astea ezartzea bideratuko dute, lanaldi orokorra egiten dutenentzat, eta hein bereko lanaldi-murrizketa txandaka edo txanda berezietan lan egiten dutenentzat.

Asteko 35 orduko lanaldiaren urteko zenbaketak 1.592 ordu egiten du, guztira. Neurri horiek aplikatzeak lanpostu berrien beharra ekarriko du, behar horiek betetzea ezinbestekoa bada zerbitzuen maila mantentzeko. Horren berri eman behar da kasuan kasuko enplegu eskaintza publikoan sartzeko.

Bai lanaldiaren murriztea zehazteko formulak, bai zerbitzua bermatzeko behar den enplegu egonkorren sorrera zehazteko formulak, langileen legezko ordezkariekin negoziatu behar dira.

Foru Komunitatean ordezkari gehien dituzten bi sindikatu etekin 1999ko otsailaren 26an sinaturiko “Lanaldia berrantolatu eta murriztearen bidez kontratazioa sustatzeko akordioa” izenekoan esaten denaren arabera, Nafarroako Gobernuak lanaldiaren berrantolamendua eta murrizketa sustatuko ditu enpresetan, baldin eta Foru Komunitateko Administrazioak, toki entitateek edo haien menpeko erakunde autonomoek partaidetzaren gehien-goia badute aipatu enpresen kapitalean, zuzenean edo zeharka.

Era berean, aparteko orduak mugatzearena ere bereganatuko du, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari gehien dituzten bi sindikatu etekin 1999ko otsailaren 26an sinaturiko “Aparteko Orduak Deuseztatu eta Murrizteari buruzko Akordioa” izenekoan esaten denari jarraituz.”

16. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

3. artikulua. Unitate errenta-hartzailea

Orokorrean, unitate errenta-hartzailea bat etorriko da familia-unitatearekin. Familia-unitate bakoitzak oinarrizko errenta bakarra jaso ahal izanen du.

Bi unitate errenta-hartzaile edo gehiago bizi badira etxebizitza berean, eta ez badago ahaidetasunik beren artean, bakoitzak oinarrizko errenta bat jasoko du.

Familia-unitateak hartzen ditu eskatzailea eta, kasua bada, harekin bizi diren pertsona bat edo gehiago, eskatzailearekin lotura dutenak ezkondu-ta daudelako edo gisako afektibitate-harremana dutelako, zein ere den haien sexu-joera, edota bigarren maila bitarteko odol-ahaidetasuna edo lehen maila arteko ezkontza-ahaidetasuna dutelako.

4. artikulua. Prestazioa eskuratzeko baldintzak

1. Hogeita bost urte baino gehiago izatea –edo, gutxiago izanda, emantzipatua egotea– eta hirurogeita bost urte baino gutxiago izatea, edo gehiago eta diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak izatea.

2. Nafarroan bizitokia izatea, jarraian eta egiazki, eskaera onetsi baino lehenagoko hamabi hila-beteetan gutxienez.

3. Familia-unitatearen azken hiruhilekoko baliabide ekonomikoak, hilabete bakoitzeko kontaketa, hilean legokiokeen oinarrizko errentaren zenbakekoa baino txikiagoak izatea.

4. Aldez aurretik eskatu izana eskumena duen edozein administrazio publikotan zuzenbideari jarraikiz legozkiokeen laguntzak, pentsioak, prestazioak edo sorospenak, edozein motatakoak, mantenu pentsioak eta/edo konpentsazioak ezarri eta ordaintzeko legezko akzioak betetzea barne.

Zioak: Gizarte politikak eta, bereziki, gizarteratze edo oinarrizko errentak duten helburua da pertsonen arreta eskaintzea, bereziki elkartasunaren eta berdintasunaren ikuspegitik, eta arreta pertsona guztiei eskaintzea, salbuespenik gabe. Hori dela eta, beharrezkoa da herritarren unibertsal-tasunaren ikuspegitik egitea.

17. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.- Prestazioa jasotzeko baldintzak.

Testu berria:

3. artikulua.- Eskubidearen titulartasuna lortzeko baldintzak.

Honako pertsona hauek izan ahalko dira Diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidearen titularrak, modalitate horietako bakoitzerako foru lege honetan aurreikusitako baldintzetan:

1.- Gutxienez eskaera aurkeztu baino urtebete lehenago sortutako bizikidetz-unitatea izatea, eta epe hori bete beharra honako hauentzat geratuko da salbuetsita:

a) Adingabeak ekonomikoki beren kargura dituztenentzat.

b) Ezkontza bidez edo horren antzeko harreman iraunkor baten bidez bizikidetz-unitate berri bat osatzen dutenentzat.

c) Bizikidetz-unitate berri bat osatzen dutenentzat banantze, dibortzio edo ezkontza-deuseztasun bidez, izatezko loturaren desegite bidez edo bikoteko kideetako bat hil delako, betiere unitate berria aurreko bizikidetz-unitateko kideek soilik osatzen badute.

d) Bizikidetz-unitate berri bat osatzen dutenentzat, beren guraso, tutore edo legezko ordezkarien heriotzagatik edo behin betiko sartu dituztelako izaera sozial, sanitario edo soziosanitarioko abegi-zerbitzu batean edo espetxe batean.

e) Bizikidetz-unitate berri bat osatzen dutenentzat ohiko etxebizitza utzi egin behar izan dutelako etxeko tratu txarren biktima izan direlako, betiere unitate berria aurreko bizikidetz-unitateko kideek soilik osatzen badute.

f) Bizikidetz-unitate berri bat osatzen dutenentzat, betiere kotizaziopeko edo kotizaziorik gabeko zahartzaroko, baliaezintasuneko edo alarguntzako pentsioen onuradunekin, horien ezkontideekin edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bitartez horiei lotutako pertsonekin eta ekonomiko ki horien mende bizi diren pertsonekin osatutakoa.

g) Aurreko idatz-zatian adieraziriko unitatearen gaineko kideek osaturiko bizikidetz-unitate bat osatzen dutenentzat, arau honen aplikazioaren ondorioz betiere orain unitate independente bat osatzen badute.

2.- Prestazioa eskatzen den udalerrian erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea eskaera aurkeztu zen unean eta prestazioa jasotzen den denbora guztian, eta eskaera aurkezteko dataren aurreko urte osoan gutxienez Nafarroako Foru Komunitateko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta bertan benetan bizi izatea. Aldez aurreko gutxieneko epe hori bete ezean, eskatzaileek Nafarroako Foru Komunitateko edozein udalerritan erroldatuta eta bertan benetan bizi izan beharko dute bost urtez jarraian, aurreko hamar urteen barruan.

Nahikoa baliabiderik ez edukitzea. Horrelako baliabiderik ez daukala iritziko da, honako baldintza hauek guztiak betetzen direnean:

a) Bizikidetzta-unitateko kide-kopuruaren eta bizikidetzta-unitate motaren arabera egoki dakiekeen Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errentaren hileko zenbatekoaren azpitik dauden hileko diru-sarrera edo etekin konputagarriak edukitzea.

b) Inolako ondasun higiezinik ez edukitzea, honako salbuespen hauekin:

– Ohiko etxebizitza, horrek aparteko balioa duenean salbu.

– Bizikidetzta-unitatearen diru-sarreraren iturria diren norberaren konturako jarduera edo jarduerak egiteko erabiltzen diren higiezinak edo higiezin horien zatiak.

c) Dauzkaten dirua, tituluak, baloreak, ibilgailuak eta, oro har, beste edozein ondasun higikor gehienez ere honen zenbatekoak izatea: erabateko baliabiderik ezaren kasuan bizikidetzta-unitateko kideen guztizko kopuruaren arabera legokiekeen Diru-sarrerak bermatzeko errentaren urteko zenbatekoaren lau halako.

4.- 23 urtetik gorakoa izatea. Baldintza hori ez dute bete beharko 18 urtetik gorakoak diren eta, gainerako baldintzak beteta, ondoren adierazten diren egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:

a) Baliaezintasuneko pentsioa jasotzen dutenak.

b) Ez aitarik ez amarik ez duten umezurtzak.

c) Ekonomikoki beren kargura edukitzea % 45eko edo hortik gorako desgaitasun-kalifikazioa duten adingabeak edo pertsona helduak edota autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean aurreikusitakoaren arabera II. graduko 1. mailako mendetasuna-

ren kalifikazioa edo handiagoa duten adingabeak edo pertsona helduak dituztenean.

d) Etxeko tratu txarren biktima izatea.

e) Ezkonduta edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez beste pertsonaren bati lotuta egotea, eskaera egin baino gutxienez sei hilabete lehenagotik.

5.- Eskaera egiten den unean eta espedientea izapidetzen den bitartean egoitza-zerbitzuko plaza baten erabiltzaile ez izatea, plaza hori soziala, sanitarioa edo soziosanitarioa eta iraunkorra bada eta guztiz edo partez funts publikoekin finantzatzen bada.

6.- Espetxean ez egotea, ez eskaera egiteko unean ezta espedientea izapidetzen den bitartean ere.

7.- Laneko diru-sarrerak dituenen, lanaldimurrizketa edo antzeko egoeraren bat ez baliatzea, salbu eta zirkunstantzia hori borondatezkoa ez denean eta horrela egiaztatzen denean edota erreferentziatzko oinarrizko gizarte zerbitzuak aldez aurretik txostena eman ondoren hori beharrezkotzat jotzen denean.

8.- Espedientearen izapidetzea amaitu aurretik baliatzea titularrari edo bizikidetzta-unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro.

9.- Gizarteratze Hitzarmen bat sinatuta edukitzea, edo aurreakordio bat.

Zioak: Irizpide ahalik eta zabal eta zehatzenak ezartzea prestazioaren titular izateko bete behar diren baldintzei dagokienez, bai eta arazo horiek ukitutako herritarren kasuistika garrantzitsuena eta esanguratsuen kontuan hartzea ere.

18. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

I. kapituluko 3. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Esaldi bat gehituta, honela geldituko litzateke testua:

I. kapitulua. Xedapen orokorrak. 3. artikulua.

“2. Salbuespen gisa, gizarte politikaren arloko eskumena duen departamentuaren titularrak emandako foru agindu bidez, eta espedientean objektibotasunez justifikatutako arrazoiengatik, beste pertsona batzuk ere prestazioaren hartzaile izan ahalko dira, baldin eta, haien familia-unitate-ek a) eta d) baldintzak bete gabe ere, premia ego-

eran gelditzea eragin duten inguruabarrak badaude, erregelamenduz zehaztuko direnak. Espedientean, horren aldeko txostena jaso beharko da, oinarrizko gizarte zerbitzuen unitateak egina edota eskaera horretan eskuduna den organoak egina.”

Zioak: Irizpide teknikoen erabilera indartzea gizarteratze-errenta salbuespenezko egoeretan ematen denetarako. Foru lege proiektuak ez du egoera hori jasotzen, eta komeni da araututa uztea gizarteratze-errenta berriaren gaineko testuan.

19. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

I. kapituluko 3. artikuluari 3. idatz-zatia gehitzea proposatzen da. Hona testua:

I. kapitulua. Xedapen orokorrak. 3. artikulua.

“3. Gizarteratze-errentaren eskaerarekin batera ez da aurkeztu beharko espedientearekin zerikusia duen dokumentaziorik, legeak edo erregelamenduak eskaera horietarako eskatzen duenik, baldin eta dokumentazio hori dagoeneko Administrazioaren esku baldin badago.”

Zioak: Eskaerak aurkezteko tramiteak erraztea eta herritarrari eskatzen zaiona soilteza.

Gai horretan gaur egun indarrean den araudiarekin koherentea izan behar da, eta araudi hori bete.

Nafarroakoa: Prozedura administratiboa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 9. artikuluko 4. idatz-zatiak hau ezartzen du: “4. Herritarrek eskubidea dute kasuan kasuko prozedurari aplikatzekoak diren arauak ezartzen ez dituzten agiriak edo jadanik Foru Komunitateko administrazioaren esku daudenak ez aurkezteko. Horretarako, herritarrek agiria dagoen espedientea identifikatu ahal izanzen dute, eta organo eskudunek ere eskatu ahal izanzen diete interesdunei hori egin dezaten.”

Nazionala: Gauza bera ezartzen du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 artikuluko f) letrak.

“35. artikulua. Herritarrek herri-administrazioe-kiko harremanetaneskubide hauek dituzte:

f) Ez dute aurkeztu beharrik kasuan kasuko prozedurari aplika dakizkiokeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk.”

20. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. I. kapitulua Xedapen orokorrak. 3. artikulua.

3. artikuluari 4. idatz-zatia gehitzea proposatzen dugu. Hona testua:

“4. Gizarteratze-errenta kobratzeko eskubidea ematen duten eskaerak edozein erregistro ofiziale-tan aurkez daitezke; hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuarenetan, udalenetan, bai eta oinarrizko gizarte zerbitzuen egoitzetan ere. Nafarroako Gobernuak, gainera, beharrezkotzat eta komenigarritzat jotzen dituen bide telematikoak ere gaitu ahalko ditu.”

Zioak: Eskaerak aurkezteko izapideak soildu eta herritarrei gizarteratze-errenta eskuratzeko bidea erraztea. Foru lege proiektuak ez du arautzen eskaerak nola aurkeztu.

21. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko zuzenketa.

22. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Idatz-zati bat kentzeko zuzenketa. I. kapitulua Xedapen orokorrak. 4. artikulua.

I. kapituluko 4. artikuluko 3. idatz-zatia kentzea proposatzen da.

Zioak: Ez dago justifikatuta gizarteratze-errenta berriaren onuradunei gutxitzea jaso behar duten zenbatekoa, noiz eta beren bazterketa-egoera denboran egonkortu egin denean, orduantxe behar baitute, hain zuzen ere, botere publikoen arreta handiagoa.

23. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

III. titulu berri bat gehitzeko zuzenketa, 4. artikulua berri bat izanen duena.

“III. TITULUA**Oinarrizko errenta**

4. artikulua. Zenbatekoak, epeak eta esleipenak.

1. Oinarrizko errentaren zenbatekoa zehazteko, erlazioatuko dira lanbide arteko gutxieneko soldataren ehunekoia –urtero ezarriko da–, diru-sarrera propioak eta familia-unitatea osatzen duten kideen kopurua; zehaztapen hori hurrengo eskalen arabera eginen da.

Pertsona 1: lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 100 arte.

2 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 120.

3 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 130.

4 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 140.

5 pertsona edo gehiago: lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 150.

Esleitutakoa ez da inoiz ere lanbide arteko gutxieneko soldataren % 10 baino gutxiago izanen.

1. Familia batek ezin izanen du lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 150 baino gehiago jaso oinarrizko errenta gisa.

2. Oinarrizko errenta gizarte-politikaren arloan eskumena duen departamentuak emanen du, eta sei hilabeteko iraupena izanen du, luzatu ahalko dena, beste hainbesteko eta elkarren ondoko epeetan, gehienez ere bi urte egin arte.

3. Salbuespen gisa, gizarte-politikaren arloan eskumena duen departamentuaren titularrak emandako foru aginduaren bidez, aurreko idatz-zatian ezarritako gehieneko iraupena luzatu egin ahal izanen da arrazoi bereziak daudenean. Kasutan, halaber, artikulua honetako 1. idatz-zatian ezarritako zenbatekoa ez den beste bat eman ahal izanen da. Arrazoi bereziok eta zenbatekoak erregelamenduz ezarri beharko dira.

4. Oinarrizko errenta jasotzen aritzeko gehienezko epea Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroan

ezarritakoa izanen da, eta prestazio hau prestazio garantizatutzat joko da.

5. Minusbaliotasunagatik oinarrizko errenta baino prestazio txikiagoa jaso eta modu jarraituan lanposturen bat eskuratzerik ez duten pertsonen ere bermatuko zaie prestazio ekonomiko osagarri bat; prestazio horren zenbatekoa, gutxienez, bien arteko aldeari dagokion kopurua izanen da, lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 100era iritsi arte, oinarrizko errenta jasotzen duten gainarako pertsonen baldintza berberetan”.

24. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikulua honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

5. artikulua. Oinarrizko errentaren zenbatekoa

Oinarrizko errentaren kontzeptuan jasoko den zenbatekoa, hortaz, ulertuko da dela unitate errenta-hartzailearen baliabide ekonomikoak ondoko kopuruetara iritsi arte osatzeko behar den adina.

Pertsona 1: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100.

2 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 120.

3 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 135.

4 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 145.

5 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 155.

6 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 165.

Zazpigarren pertsonatik aurrera, % 5 gehituko da unitate errenta-hartzaileko kide bakoitzeko.

Zioak: Gizarte politikak eta, bereziki, gizarteratze edo oinarrizko errentak duten helburua da pertsonen arreta eskaintzea, bereziki elkartasunaren eta berdintasunaren ikuspegitik, eta arreta pertsona guztiei eskaintzea, salbuespenik gabe. Hori dela eta, beharrezkoa da herritarren unibertsaltasunaren ikuspegitik egitea.

25. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikulua –Zenbatekoak– aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

4. artikulua. Hileko zenbatekoa zehaztea.

1.- Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errentaren kasuan, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Bizikidetzaren unitate bakoitzari aplikatu dakiokeen prestazioaren hileko zenbatekoa honen arabera kalkulatu da: eskatzailearen bizikidetzaren unitatearen ezaugarriak dituzten bizikidetzaren unitateentzat prestazioak bermatutako gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoaren eta eskatzailearen bizikidetzaren unitateak eskura dituen baliabideen arteko diferentziaren arabera.

Bizikidetzaren unitateak ez badu inolako baliabiderik, Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Errentaren hileroko zenbatekoa osorik emanen da.

Ondorio horietarako, bermatutako gutxieneko diru-sarrerak honela definituko dira: eskaera egiten den unean indarrean zegoen lanbide arteko gutxieneko soldataren portzentajeak, hauexek:

* Pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100.

* Bi pertsonako bizikidetzaren unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 115.

* Hiru pertsonako bizikidetzaren unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 130.

* Lau pertsonako bizikidetzaren unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 140.

* Bost pertsona edo gehiagoko bizikidetzaren unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 150.

Bermatutako gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoa ezin izanen da, inola ere, urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren % 150 baino handiagoa izan.

b) Guraso bakarreko bizikidetzaren unitateei destinatutako Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errentaren kasuan, urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren % 10aren baliokidea den hileroko subsidio batekin osatuko da prestazioa. Ondorio horietarako, guraso bakarreko unitateentzat hartuko da soilik ama edo aita bere kargurako seme edo alaba adingabe batekin edo batzuekin dagoena eta inolako ezkontza-harremanik edo

antzekorik ez duena eskaera aurkezten duenean, ezta ondoren ere.

2.- Laneko Diru-sarrerak Osatzeko Errentaren kasuan:

a) Bizikidetzaren unitate bakoitzari aplikatu dakiokeen Laneko Diru-sarrerak Osatzeko Errentaren hileko zenbatekoa honela ezarriko da: eskatzailearen bizikidetzaren unitatearen ezaugarrien arabera zehaztutako prestazioaren bidez bermatutako gutxieneko diru-sarreraren eta eskatzailearen bizikidetzaren unitateak eskura dituen baliabideen arteko diferentziaren arabera.

Ondorio horietarako, bermatutako gutxieneko diru-sarrerak honela definituko dira: eskaera egiten den unean indarrean zegoen lanbide arteko gutxieneko soldataren portzentajeak, hauexek, hain zuzen:

* Pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100.

* Bi pertsonako bizikidetzaren unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 115.

* Hiru pertsonako bizikidetzaren unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 130.

* Lau pertsonako bizikidetzaren unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 140.

* Bost pertsona edo gehiagoko bizikidetzaren unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 150.

Bermatutako gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoa ezin izanen da, inola ere, urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren % 150 baino handiagoa izan.

b) Guraso bakarreko bizikidetzaren unitateei zuzendutako Laneko Diru-sarrerak Osatzeko Errentaren kasuan, urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren % 10aren baliokidea den hileroko laguntza batekin osatuko da prestazioa.

Ondorio horietarako, guraso bakarreko unitateentzat hartuko da soilik ama edo aita bere kargurako seme edo alaba adingabe batekin edo batzuekin dagoena eta inolako ezkontza-harremanik edo antzekorik ez duena eskaera aurkezten duenean ezta ondoren ere.

Zioak: Lege proiektuan aurreikusitako kasu desberdinei dagozkien zenbatekoak ezartzea eta lanbide arteko gutxieneko soldatarekin lotzea.

26. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. I. kapitulua Xedapen orokorrak. 4. artikulua.

I. kapituluko 4. artikuluari idatz-zati bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“Zenbatekoa aldatzea:

a) Gizarteratze-errentaren zenbatekoa aldatu eginen da, baldin eta aldatu egiten bada bizikidetzta-unitateak dituen kideen kopurua edo aldatu, halaber, prestazioa kalkulatzeko oinarri gisa erabili diren baliabideen zenbatekoa.

b) Gizarteratze-errentaren zenbatekoa aldatzeko prozedura erregelamenduz ezarriko da, eta prozedura horretan ezarri beharko da zenbatekoaren aldaketaren ondorioak aplikatuko direla aldaketa eragin duen egitatea gertatu ondoko hilabeteko lehenengo egunetik aurrera. Zenbatekoa aldatzeko prozedura horretan, oinarritzko gizarte zerbitzu- en edota organo eskudunaren txostena jaso beharko da.”

27. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikulua kentzeko zuzenketa.

28. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Idatz-zati bat kentzeko zuzenketa. I. kapitulua. Xedapen orokorrak. 5. artikulua.

I. kapituluko 5. artikuluko 2. idatz-zatia kentzea proposatzen da.

Zioak: Ez dago justifikatuta gizarteratze-errenta berriaren onuradunei hainbeste gutxitzea jaso behar duten zenbatekoa, noiz eta beren bazterketa-egoera denboran egonkortu egin denean, orduantxe behar baitute, hain zuzen ere, botere publikoen arreta handiagoa.

4. artikuluko 3. idatz-zatiari aurkeztutako zuzenketarekin koherenteak izatearren.

29. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa.

“5. artikulua. Prestazioa eskuratzeko baldintzak

1. Oinarritzko errenta jasotzeko baldintzak erregelamenduz ezarriko dira, eta gutxienezko hauek eskatuko dira:

a) Hogeita bost urtetik gorakoa eta hirurogeita bost urtetik beherakoa izatea. Salbuespen gisa, eta espedientean objektiboki justifikatutako arrazoiengatik, familia unitate bat osatzen duten pertsonak prestazioaren onuradun izan ahalko dira, nahiz eta baldintza guztiak ez bete, baldin eta erregelamenduz zehaztuko diren behar larriko egoeretan badaude.

Kasuotan, prestazioa ematen duen ebazpenak aski arrazoitua izan beharko du.

b) Epe jakin batean sinatzea, ez baita sei hilabetekoa baino luzeagoa izanen, gizarteratze-akordio nahiz gizarteratze- eta laneratze-akordio bat.

c) Frogatu beharko da Nafarroan jarraian bizi izana eskabidea aurkeztu aurreko hamabi hilabeteetan, salbu eta eskatzailea gizarte-bazterketa egoeran dagoen familia-unitate bat bada eta adingabeak baditu bere kargu, kasu horretan salbuetu egin baitaiteke baldintza hori eskatzetik.

2. Gizarteratze-akordioaren nahiz gizarteratze- eta laneratze-akordioaren edukiak eta horiek izenpetzeko epeak erregelamenduz garatuko dira.”

30. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikulua honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

6. artikulua. Oinarritzko errenta jasotzen aritzeko epea

Oinarritzko errenta emateko erabakia gizarte-politikaren ardura duen departamentuarena izanen da, eta, oro har, sei hilabetekoa izanen da errenta horren iraupena.

Oinarritzko errenta antzeko epeka berritzen ahalko da, eta erabaki horren oinarria izanen da zer balorazio egiten duen familia-unitatearen egoerari buruz gizarte-politikaren ardura duen departamentuak.

Oinarrizko errenta berritzerakoan, erabakitzeke zer zenbateko izanen duen errenta horrek, errenta emateko irizpide bera erabiliko da.

Errenta kobratzeko epea amaitzen zaienean, prestazioaren amaierara iritsi direnei gizarte-erregulu bat garantzatzeko zaie, urtebetekoa gutxienez.

Zioak: Gizarte politikak eta, bereziki, gizarteratze edo oinarrizko errentak duten helburua da pertsonen arreta eskaintzea, bereziki elkartasunaren eta berdintasunaren ikuspegitik, eta arreta pertsona guztiei eskaintzea, salbuespenik gabe. Hori dela eta, beharrezkoa da herritarren unibertsaltasunaren ikuspegitik egitea.

31. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua –Jasotzeko aldia– aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

5. artikulua. Eskubidearen iraupena.

1.- Diru-sarrerak bermatzeko errentarako (modalitatea edozein dela ere) eskubidearen onarpenak iraunen du hura emateko arrazoiek badiraute, prestazioa lortzeko eskatutako baldintza ekonomikoak edo beste edozein motatakoak betetzen badira eta dekretu honetan aurreikusitako betebeharrak betetzen badira, bi urteko aldi baterako emanez, eta aldi hori bi urterako berritu ahal izanen da arrazoi horiek badiraute eta aipatu baldintzak eta betebeharrak betetzen jarraitzen bada.

Zioak: Diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea aitortzea eta ez mugatzea, ez denborari ez zenbatekoari dagokienez, legeak ezarritako baldintzek bere horretan dirauten bitartean.

32. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Esaldi bat gehitzeko zuzenketa. I. kapitulua Xedapen orokorrak. 5. artikulua.

I. kapituluko 5. artikuluko 2. idatz-zatikoko lehenengo lerroa aldatu eta honela geldituko da:

“2. Salbuespen gisa, gizarte politikaren arloko eskumena duen departamentuaren titularrak emandako foru aginduaren bidez, aurreko idatz-zatikan ezarritako aldi edo epeak gainditu ahal izanen dira salbuespeneko arrazoiek daudenean edo bazterketa egoera finkatua denean, betiere, erregulaziorik aurreikusitako egoerak badira. Espedienteetan, horren aldeko txostena jaso beharko da, oinarrizko gizarte zerbitzuen unitate eskudunak egina”

Zioak: Salbuespeneko egoeretan, irizpide teknikoan aplikazioa indartu eta errenta horiek emateko erabakiaren askatasun-tartea murriztea.

3. artikuluko 2. idatz-zatiari aurreko zuzenketa zuzenketarekin koherenteak izatearren.

33. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Paragrafo bat gehitzeko zuzenketa. I. kapitulua Xedapen orokorrak. 5. artikulua.

I. kapituluko 5. artikuluko amaieran lerroa bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“Espedienteak hogeita lau hilabeterako baino gehiagorako berritzen direnean, oro har hiru hilabeteko epea izanen dute; epeok, ordea, iraupen bereko epeka berritzen joaten ahalko dira”

Zioak: Kontrolak indartzea iraupen luzeeneko espedienteetan.

34. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua kentzeko zuzenketa.

35. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

IV. titulu bat gehitzeko zuzenketa, 6. artikuluko berri bat izanen duena.

“IV. TITULUA
Finantzaketa

6. artikulua.

Foru lege honetan hartutako neurriak Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontu orokorraren bidez finantzatzeko dira”

36. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikulua honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

7. artikulua. Prestazioa jasotzen duten pertsonen betebeharrak.

Oinarrizko errentaren prestazioaren hartzaileek betebeharrak hauek izanen dituzte:

a) Oinarrizko errenta zertarako eman zaien, hartarako erabiltzea.

b) Bizitokia Nafarroan izatea, jarraian eta egi-azki, prestazioa jasotzen den denbora guztian.

c) Familia-unitateko adingabeak eskolatzea eta ziurtatzea ikastetxeetara joaten direla modu aktiboan, jarraituan eta etengabe, nahitaezko hezkuntzaren etapan.

d) Eskatzea, oinarrizko errenta jasotzen ari diren denbora guztian, familia-unitateko edozeinen eskubidekoa den prestazio ekonomiko oro.

e) Lan egiteko prest egotea, bai titularrak bai prestazioaren gainerako onuradunak ere, lanerako adina dutenak, salbu eta, oinarrizko gizarte zerbitzuen eta/edo gizarteratzeko eta laneratzeko taldeen iritziz, lan merkatuan sartzeko egoeran ez dauden kasuan.

f) Beren egoeraren jarraipena egiteko elkarrizketetara joatea, halakoetara deitzen dituztenean oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalak eta arlo horretan eskumena duen departamentukoak.

g) Familia-unitatean gertatzen diren aldaketen berri ematea oinarrizko gizarte zerbitzuari, gertatzen diren egunetik hogeitun egun baliouduneko epean, baldin eta aldaketa horiek oinarrizko errentaren aldaketa edo iraungitzea ekar badezakete.

Zioak: Gizarte politikak eta, bereziki, gizarteratze edo oinarrizko errentak duten helburua da pertsonen arreta eskaintzea, bereziki elkartasunaren eta berdintasunaren ikuspegitik, eta arreta pertsona guztiei eskaintzea, salbuespenik gabe. Hori dela eta, beharrezkoa da herritarren unibertsaltasunaren ikuspegitik egitea.

37. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikulua –Onuradunen betebeharrak– aldatzeko zuzenketa.

6. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

Errentaren prestazioaren hartzaileek betebeharrak hauek izanen dituzte:

a) Errenta zertarako eman zaien, hartarako erabiltzea.

b) Bizitokia Nafarroan izatea, jarraian eta egi-azki, prestazioa jasotzen den denboran.

c) Gizarteratze Akordioa izenpetu eta betetzea.

d) Titularrak lanerako prest egon beharko du.

e) Oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalak bere egoeraren jarraipena egiteko deituz gero, elkarrizketara joatea, Gizarteratze Akordioan adierazitako maiztasun eta baldintzekin.

Zioak: Diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzaileei eska dakizkiekeen betebeharrak ezartzea, herritar guztiek bete behar dituzten baldintzak espresuki jaso gabe. Jasotzaileen neurrigabe-ko kontrola saihestea eta a priori haien arduraren eta gaitasunaren konfiantza izatea.

38. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Letra bat gehitzeko zuzenketa. I. kapituluak Xedapen orokorrak. 6. artikulua.

I. kapituluko 6. artikuluari j) letra gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“j) Ohiko helbidea aldatutako guztietan, aldaketa horren berri ematea”

Zioak: Foru lege proiektuak ez du egoera hori jasotzen.

39. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Letra bat gehitzeko zuzenketa. I. kapituluak Xedapen orokorrak. 6. artikulua.

I. kapituluko 6. artikuluari k) letra gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“k) Eskean ez ibiltzea, ezta horretan aritzen uztea edo behartzea ere bizikidetzako familia-unitate beste kide batzuk”

Zioak: Foru lege proiektuak ez du egoera hori jasotzen.

40. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Letra bat gehitzeko zuzenketa. I. kapitulua. Xedapen orokorrak. 6. artikulua.

I. kapituluko 6. artikuluari l) letra gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“l) Prestazioetan oker jasotako zenbatekoak itzultzea.”

41. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikulua kentzeko zuzenketa.

42. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikulua honako testu honekin ordeztzeko zuzenketa:

8. artikulua. Gizarteratze- eta laneratze-akordioa

Oinarrizko errenta jasotzeko, laneratze- eta gizarteratze-akordio bat sinatu beharko da, oinarrizko errenta eman izana jakinarazten denetik gehienez ere hilabeteko epean.

Akordio horrek Administrazioak emanen dituen laguntzak bilduko ditu, bai eta onuradunek prozesu hori burutzeko ibilbidean hartutako konpromisoak ere.

Akordioan, onuradunen betebeharren artean, gizartearen onurako jardueretan parte hartzekoa ere jaso ahal izanen da.

Zioak: Gizarte politikak eta, bereziki, gizarteratze edo oinarrizko errentak duten helburua da pertsonen arreta eskaintzea, bereziki elkartasunaren eta berdintasunaren ikuspegitik, eta arreta pertsona guztiei eskaintzea, salbuespenik gabe. Hori dela eta, beharrezkoa da herritarren unibertsalitatearen ikuspegitik egitea.

43. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. Gizarteratze Akordioa.

Testu berria:

7. artikulua. Gizarteratze Akordioa.

1.- Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errenta emateko, pertsona titularrarekin Gizarteratze Hitzarmen bat ezarri beharko da, betiere jasotzen duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko tresna gisa ulertzen bada.

2.- Gizarteratze-hitzarmenaren eduki zehatzak, hala titularraren nola bere bizikidetz-unitateko gainerako kideen gizarteratzera eta/edo laneratzerara orientatuak, esparru horretan titularrak eta dagokion Administrazio Publikoak adostuta definituko dira.

3.- Gizarteratze-hitzarmena sinatu beharretik salbuetsita geratuko dira titular gisa pentsiodun den pertsona bat duten bizikidetz-unitateak, salbu eta titularrak berak edo bere bizikidetz-unitateko gainerako pertsonetako baten lan egiteko adina duenean eta lanerako ezintasun iraunkor absolutuan ez dagoenean.

Zioak: Oinarrizko errentaren balio garrantzitsuenetako bat lotetsi eta bultzatzea; hots, gizarteratzeko eta laneratze aukera.

44. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

7. artikuluan idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa, honako testuarekin:

“3. Gizarteratze eta gizarteratu eta laneratze akordioaren edukiak eta horiek izenpetzeko epeak erregelamenduz garatuko dira. Gizarteratze Akordioan jaso ahal izanen da, onuradunen betebeharren artean, lankidetzaren jardueretan, prestakuntza ikastaroetan, borondatezko lanaren zerbitzuetan eta gizartearen onurako bestelako jardueretan parte hartzekoa.”

Zioak: Lege proiektuaren testuan jaso gabe dago prestakuntza ikastaroen aukera.

45. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa. I. kapitulua Xedapen orokorrak.

7. bis artikulu berria gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“7. bis artikulua. Prestaziorako eskubidea etetea.

1. Honako arrazoiengatik etenen da gizarteratze-errenta kobratzeko eskubidea:

a) Betetzeari uzteagatik, aldi batez, eskubide hori aitortzeko exijitzen diren baldintza bat edo gehiago.

b) Eskubidearen titularrak (edo bere bizikidetz-unitateko norbaitek) ez betetzeagatik, aldi batez, prestazioa eskuratzeko onartu zituen betebeharrak.

2. Gizarteratze-errenta jasotzeko eskubidea etetean, eten eginen da, hurrengo hilabeteko lehengo egunetik aurrera, prestazioaren ordainketa. Gizarteratze-errenta kobratzeko eskubideak etenda jarraituko du etete hori eragin zuten arrazoiak bere horretan jarraitzen duten bitartean.

3. Etetea ofizios edo eskatzaileak eskatuta ezeztatuko da; hain zuzen ere, berriro betetzen direnean gizarteratze-errentaren onuradun izateko baldintzak. Behin etetea eragin zuten arrazoiak desagertuta, gizarteratze-errenta hurrengo egunetik aurrera kobratuko da.”

Zioak: Foru lege proiektuak ez du gizarteratze-errenta eteteko aukerarik jasotzen; oinarrizko errentari buruzko oraingo legeak, aldiz, bai.

46. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua kentzeko zuzenketa.

47. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua kentzeko zuzenketa. Prestaziorako eskubidea azkentzea.

Zioak: Prestaziorako eskubidea azkentzea ez da lotu behar gehienezko iraupen-aldiarekin,

sorrarazi zuten arrazoiak desagertzearekin baizik. Gizarteratze Akordioa behar bezala beteta ez bidaltzearen gisako arrazoiak ez dituzte halako ondorio larriak sortu behar. Neurri logikoak pedagogiara eta zuzentasunera bideratu behar dira, eta ez prestazioa kentzera.

48. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

9. artikulua. Oinarrizko errentarako eskubidea iraungitzea.

Oinarrizko errenta kasuotan iraungiko da:

a) Errenta eman zuen ebazpenean ezarritako epea amaitu eta berritzeko eskatu ez bada.

b) Prestazioa emateko kontuan hartutako baldintzak aldatu badira, halako moduz non, oinarrizko gizarte zerbitzuak hala baloratuta, errenta jasotzeko baldintzak ez dituzten betetzen.

c) Gizarteratze- eta laneratze-akordioa ez betetzeagatik.

d) Prestazioa jasotzeko eskatzen diren inguruabarrei edo baldintzei buruzko datu okerrak emateagatik.

e) Prestazioa jasotzen ari den epean lan-eskaintza bat ez onartzeagatik, kasuko hitzarmen kolektiboaren arabera ordaindutakoa baldin bazen.

f) Erregelamenduz ezartzen diren arrazoiengatik.

Zioak: Gizarte politikak eta, bereziki, gizarteratze edo oinarrizko errentak duten helburua da pertsonen arreta eskaintzea, bereziki elkartasunaren eta berdintasunaren ikuspegitik, eta arreta pertsona guztiei eskaintzea, salbuespenik gabe. Hori dela eta, beharrezkoa da herritarren unibertsaltasunaren ikuspegitik egitea.

49. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Ordeztuko zuzenketa. I. kapitulua Xedapen orokorrak. 8. artikulua.

I. kapituluko 8. artikuluko b) letra aldatu eta honela geldituko da:

“b) Prestazioa emateko aintzat hartutako baldintzen ez-betetzea behin betikoa izateagatik, halako moduan non onuraduna prestazioa jasotzeko eskatutako baldintzetatik kanpo uzten baitute”

Zioak: Nafarroako Gobernuak igorritako lege proiektuaren edukia argitzea. Baldintzen betetzean gertatzen den behin-behineko aldaketa batek etetea ekar dezake, baina ez ordea azkentzea.

50. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Letra bat gehitzeko zuzenketa. I. kapitulua Xedapen orokorrak. 8. artikulua.

I. kapituluko 8. artikuluari i) letra gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“i) Onuradunaren heriotzagatik”

Zioak: Foru lege proiektuak ez du egoera hori jasotzen, eta komeni da gizarteratze-errenta berriaren gaineko testuan araututa uztea.

2. artikuluari 3. idatz-zatia gehitzeko aurkeztutako zuzenketarekin koherenteak izatearren.

51. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Letra bat gehitzeko zuzenketa. I. kapitulua Xedapen orokorrak. 8. artikulua.

I. kapituluko 8. artikuluari j) letra gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“j) Pertsona titullarrak uko egiteagatik”

Zioak: Foru lege proiektuak ez du egoera hori jasotzen, eta komeni da araututa uztea gizarteratze-errenta berriaren gaineko testuan.

52. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Letra bat gehitzeko zuzenketa. I. kapitulua Xedapen orokorrak. 8. artikulua.

I. kapituluko 8. artikuluari k) letra gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“k) Zehapen-prozedura batean hala ebatzi izanagatik.”

Zioak: Foru lege proiektuak ez du egoera hori jasotzen, eta komeni da gizarteratze-errenta berriaren gaineko testuan araututa uztea.

53. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. I. kapitulua Xedapen orokorrak. 8. artikulua.

Amaieran lerrokada bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“2. Prestazioaren titularra den pertsona hiltzen bada, bizikidetzta-unitateak pertsona bakarrekoak ez diren kasuetan, gizarteratze-errenta jasotzeko eskubidea ez da azkenduko. Kasu horietan, bizikidetzako familia-unitateko pertsona bat subrogatuko da eskubide horretan; oinarritzko gizarte-zerbitzuek txosten bidez aproposena jotzen dutena, hain zuzen”

Zioak: Foru lege proiektuak ez du egoera hori jasotzen, eta komeni da araututa uztea gizarteratze-errenta berriaren gaineko testuan.

54. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. I. kapitulua Xedapen orokorrak. 8. artikulua.

I. kapituluko 8. artikuluari lerrokada bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“Gizarteratze-errenta jasotzeko eskubidea azkentzeak kalte nabarmenak eragiten dizkienean modu objektiboan, bizikidetzako familia-unitateko gainerako kideei, eta kalteok oinarritzko gizarte-zerbitzuaren kasuko txostenarekin berresten direnean, organo eskudunak modu urgentean eta lehenetsunez tramitatuko du, erregelamenduz ezartzen den moduan, prestazioa jasotzeko eskubidearen berreskuratzea”

Zioak: Foru lege proiektuak ez du egoera hori jasotzen, eta komeni da gizarteratze-errenta berriaren gaineko testuan araututa uztea.

55. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

II. kapitulua aldatzeko zuzenketa.

56. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

9., 10., 11., 12., 13., 14. eta 15. artikulua kentzeko zuzenketa.

57. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

II. kapitulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Prestazioaren jasotzaileek egiten dituzten arau-hausteei erantzun egoki, pedagogiko eta proportzionala eman behar zaie, kasu batzuetan bizirik irauteko baliabide ekonomikoak erabat kentzea dakarren zehapen-araubidean soilik oinarritu gabe.

58. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. I. kapitulua Xedapen orokorrak. 13. artikulua.

Arau-hauste oso larria izan den beste kasu bat gehitzea proposatzen dugu. Hona testua:

“c) Eskean ibiltzea, eta horretan aritzen uztea eta horretara behartzea bizikidetzako familia-unitateko beste kide batzuk”

Zioak: Foru lege proiektuak ez du eduki hori jasotzen; horrela, gainera, indartu egiten dira iruzurra kontrolatzeko eta murrizteko neurriak.

59. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Ordezteko zuzenketa. II. kapitulua. Zehapen araubidea. 14. artikulua.

14. artikuluko 1. idatz-zatia honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

“1. Arau-hauste arinei dagokien zehapena ohar-tarazpena edo 100 eurotik 300 eurora bitarteko isuna izan den da, eta/edo gizarteratze-errentaren prestazioa jasotzeko debekua, urtebeterako gehienez ere”

Zioak: Denbora-tarte egokiago bat ezartzea, hau da, hobeki egokitzen zaiena idatz-zati horretako zehapenei –ohartarazpenak edo isunak– eta isunen zenbatekoari.

60. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Ordezteko zuzenketa. II. kapitulua. Zehapen araubidea. 14. artikulua.

14. artikuluko 2. idatz-zatia honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

“2. Arau-hauste larriei dagokien zehapena 300 eurotik 1.000 eurora bitarteko isuna izan den da, eta/edo gizarteratze-errentaren prestazioa epe batez jasotzeko debekua, bi urterako gehienez ere”

Zioak: Idatz-zati horretako zehapenei hobeki egokitzen zaien denbora-tarte bat ezartzea.

61. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Ordezteko zuzenketa. II. kapitulua. Zehapen araubidea. 14. artikulua.

14. artikuluko 3. idatz-zatia honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

“3. Arau-hauste oso larriei dagokien zehapena 1.000 eurotik 3.000 eurora bitarteko isuna izan den da, eta gizarteratze-errentaren prestazioa jasotzeko debekua, hiru urterako gehienez ere”

Zioak: Zehapenen araubidearekin hobeki ezkontzen den denbora-tartea ezartzea.

62. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Ordezteko zuzenketa. II. kapitulua. Zehapen araubidea. 14. artikulua.

14. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak honako testu hauekin ordezteko proposatzen da:

“2. Arau-hauste larriei dagokien zehapena 300 eurotik 1.000 eurora bitarteko isuna izanen da, eta/edo gizarteratze-errentaren prestazioa epe batez jasotzeko debekua, urtebetetik bi urtera bitarte.

3. Arau-hauste oso larriei dagokien zehapena 1.000 eurotik 3.000 eurora bitarteko isuna izanen da, eta gizarteratze-errentaren prestazioa bi urtetik hiru urtera bitarteko epean jasotzeko debekua.”

Zioak: Jatorrizko testua zuzentzearren.

63. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu berri bat gehitzeko zuzenketa:

10. artikulua. Baliabide ekonomiko konputagariak.

1. Familia-unitatearen baliabide ekonomikoak zeintzuk diren erabakitze, halakotzat hartuko dira hurrengoak:

- a) Lan-etekinengatiko diru-sarrera garbiak.
- b) Prestazio eta pentsio aitortuak, funts publiko nahiz pribatuen kargura finantzatutako gizarte-aurreikuspeneko araubidekoak.
- c) Ondare-elementuak ustiatzetik eratorritako diru-sarrerak.
- d) Lan-jarduera irregularrak eragindako errendimenduak, baldin eta oinarrizko gizarte zerbitzuak ziurtasunez baldin badute jarduera horien berri.

2. Familia-unitatearen baliabide ekonomikoak konputatzean, ondokoak salbuetsita geldituko dira:

- a) Edozein motatako larrialdi-laguntzak, familia-unitatearen berariazko behar bati aurre egiteko emanak izan direnak.
- b) Gizarte Segurantzak ardurapeko seme-ala-bengatik ematen dituen prestazioak.

c) Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak adingabeen familia-harrerak eragindako gastuak berdintzeko ematen dituen diru prestazioak.

d) Ondorengoak dituzten guraso bakarreko familia unitateen kasuan, etxebizitzarengatik ordaintzen duten errentaren % 50.

e) Mendekotasuna dutenak artatzeko laguntzak.

Zioak: Gizarte politikak eta, bereziki, gizarteratze edo oinarrizko errentak duten helburua da pertsonari arreta eskaintzea, bereziki elkartasunaren eta berdintasunaren ikuspegitik, eta arreta pertsona guztiei eskaintzea, salbuespenik gabe. Hori dela eta, beharrezkoa da herritarren unibertsaltasunaren ikuspegitik egitea.

64. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Ondoko artikulua gehiketa egiteko zuzenketa:

11. artikulua. Eskaria.

Oinarrizko errenta jasotzeko espediente guztiak interesdunaren eskabidearekin hasiko dira; eskabideak oinarrizko gizarte zerbitzuetan aurkeztuko dira, eredu normalizatuan eta behar den dokumentazioarekin batera.

Eskabidearekin batera, honako agiriak aurkeztu beharko dira:

- a) Diru-sarreraren eta ondarearen gaineko zinpeko deklarazioa.
- b) Familia-unitatea osatzen duten kideen kopuruaren gaineko zinpeko deklarazioa.
- c) Ezarritako epean gizarteratze- eta laneratze-akordio bat sinatzeko konpromisoa.
- d) Eskatzailearen konpromisoa, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari aditzera emateko, hogeitaneuneko epean, familia-unitatean gertatzen diren aldaketak, baldin eta oinarrizko errentaren aldaketa edo iraungitzea ekar badezakete.
- e) Eskatzailearen nortasun-agiri nazionalaren edo pasaportearen fotokopia, bai eta agiriok izateko betebeharra duten familia-unitateko gainerako kideena ere.
- f) Bereizketaren edo dibortzioaren hitzarmen arautzailea edo epai judiziala, eta, hala tokatzen bada, erabakitako pentsioa ez ordaintzeagatik hasitako egintza legalak.

Oinarrizko errenta eskatzen duten pertsonak ez badute helbide iraunkorrik, eskaeraren izapideak egiten dizkien oinarrizko gizarte zerbitzuan jarriko dute helbidea.

Zioak: Gizarte politikak eta, bereziki, gizarteratze edo oinarrizko errentak duten helburua da pertsonen arreta eskaintzea, bereziki elkartasunaren eta berdintasunaren ikuspegitik, eta arreta pertsona guztiei eskaintzea, salbuespenik gabe. Hori dela eta, beharrezkoa da herritarren unibertsaltasunaren ikuspegitik egitea.

65. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Ondoko artikulua gehiketa egiteko zuzenketa:

12. artikulua. Izapideak, ebazpena eta ordainketa.

Oinarrizko errenta lortzeko espedientea izapidetzea eta ebaztea oinarrizko gizarte zerbitzuei dagokie eta gizarte-politikaren ardura duen departamentuari; betiere, erregelamenduz ezarriko den prozedurari jarraikiz jokatu da. Bai izapideak bai ebazpena, betiere, 45 eguneko epean egin behar dira. Epe horretan ez bada jakinarazpenik egiten, eskaera onartutzat joko da.

1. Ebazpenak atzeraeraginezko ondorioak izan ditu; hain zuzen ere, eskaera –behar bezala beteta eta foru dekretu honek eskatzen duen dokumentazioarekin batera– sartu zen dataren hurrengo hilabeteko lehenbiziko egunetik aurrera; eta, hala tokatzen denean, baldintza nahitaezkoa izan da gizarteratze- eta laneratze-akordioa sinatzea jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean.

2. Ordainketa eskatzaileak aukeraturiko kontu korrontean edo aurrezki-libretan egiten da, kasuko hilabetea amaituta.

3. Oinarrizko gizarte zerbitzuak proposatuta, eta prestazioaren titularren onespenez esplizitua- rekin, ordainketa honakoei egiten ahalko zaie:

a) Ostatu hartuta dagoen establezimenduaren ardura edo titularitatea duen erakundeari.

b) Gizarteratze- eta laneratze-prozesuan laguntzen ari den entitate publiko edo gizarte-ekimenekoari.

4. Administrazioak lehenbiziko ordainketa egin beharko du eskaera jaso eta, beranduenez, hilabete baino lehen. Hori horrela, eskabideak laster

ebazteko, behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko ditu Administrazioak. Eskabideak ez badira hilabete baino lehen ebatzi, ordainketa modu automatikoan egiten da, eta gero egiten dira egin beharreko zuzenketa.

Zioak: Gizarte politikak eta, bereziki, gizarteratze edo oinarrizko errentak duten helburua da pertsonen arreta eskaintzea, bereziki elkartasunaren eta berdintasunaren ikuspegitik, eta arreta pertsona guztiei eskaintzea, salbuespenik gabe. Hori dela eta, beharrezkoa da herritarren unibertsaltasunaren ikuspegitik egitea.

66. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Ondoko artikulua gehiketa egiteko zuzenketa:

13 artikulua. Zehapen araubidea

Foru lege honetan aurreikusirik dagoen guztian, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legean ezarritakoa aplikatuko da.

Zehapenak ezartzeko prozedura Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean ezarritakoa izanen da, erregelamenduz ezar daitezkeen berezitasunak galarazi gabe.

Zioak: Gizarte politikak eta, bereziki, gizarteratze edo oinarrizko errentak duten helburua da pertsonen arreta eskaintzea, bereziki elkartasunaren eta berdintasunaren ikuspegitik, eta arreta pertsona guztiei eskaintzea, salbuespenik gabe. Hori dela eta, beharrezkoa da herritarren unibertsaltasunaren ikuspegitik egitea.

67. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

68. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa. Nafarroako Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen eta Nafarroako gizarte zerbitzuen arloko araudiaren aldaketa.

Zioak: “Gizarteratze errenta” izenak kasuen eta arazoen zati bat bakarrik islatzen du; horrenbestez, gizarte-soldatak izan beharko luke administrazio desberdinen erreferente nagusia.

69. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bakarra kentzeko zuzenketa.

70. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bakarra kentzeko zuzenketa. Prestazioak eskatzeko araubide iragankorra.

Zioak: Berritze-eskabideak arindu eta arrazionalizatu egin beharko lirateke, gizarteratze errentaren prestazioaren jarraipenak ez dezan arazo gehiagorik ekarri, pertsona horien edo haien familien egoeraz gainera.

71. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen indargabetzaile bakarra kentzeko zuzenketa.

72. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen indargabetzaile bakarra kentzeko zuzenketa. Arauak indargabetzea.

73. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan lehenengoa kentzeko zuzenketa.

74. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan lehenengoa kentzeko zuzenketa. Erregelamendu bidezko garapena.

Zioak: Gizarteratze-errenta arautzen duen Foru Legearen erregelamendua ez da egin behar; izan ere, lege berri hau murriztailea da, ikuspegi orokorraren falta du, kasu desberdinen homogeneizazi-ora jotzen du, eta irizpide zehatzailea pedagogikoa-aren gaineratik jartzen du. Ezinbestekoa da lege on bat egitea ondorengo garapena ahalik eta egokiena izan dadin.

75. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Ordezteko zuzenketa. II. kapitulua. Zehapenen araubidea.

II. kapitulua. Azken xedapenetan lehena. Erregelamendu bidezko garapena.

Azken xedapenetan lehenean, 1. idatz-zatia ordezteko proposatzen da. Hona testua:

“1. Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru dekretu bidez onetsiko du gizarteratze-errentaren gaineko erregelamendu-garapena”.

Zioak: Foru legearen erregelamenduaren aplikazioa arintzea.

76. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuaren izena aldatzeko zuzenketa. Hona hemen testu berria:

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen duen Foru Legea

Zioak: Foru lege proiektu berriaren izena ahalik eta modu zehatzenean egokitzea gure ustez hala-ko lege baten muina izan behar duenera, eta izenburuan jasotzea gizarte politiken kontzeptu orokor eta bermatzaile batetik diru-sarrerak bermatzeko errentak izan behar duena, kasu batzuetan ez baitu zerikusirik gizarteratzearekin edo laneratzearekin.

77. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena kentzeko zuzenketa.

78. ZUZENKETA

Gehitzeko zuzenketa. Zioen azalpen berria gehitzea.

Zioen azalpena:

Eskubide Sozialen Gutun Baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legearen helburua da Nafarroako Foru Komunitatean eskubide sozialen gutun bat bermatzea, gutxienez bi urtez hemen bizi izan diren herritar guztiei bide emanen diena lana eta oinarrizko errenta izateko, herritartasun-eskubide guztiez baliatu ahal izan daitezen.

Eskubide sozialen gutunak herritartasun-eskubide unibertsalen berrespenean du abiapuntu, ulerturik eskubide horiek bizimodu duina izan, kultura, etxebizitza, hezkuntza, osasun zerbitzuak jaso eta gainerako herritarren eskubide berekin gizartean erabat integratzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten guztientzat direla.

79. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Zioen azalpenari esaldi bat gehitzeko zuzenketa.

2. ataleko 2. lerrokadaren amaieran, honako esaldi hau gehitzea proposatzen da:

Zioen azalpena 2. atala.

“Edonola ere, langabeziaren prestazioak amaituta dituzten langabetuen kolektibo horrentzako prestazioak foru dekretuz arautuko dira, zeina foru lege honen argitarapenarekin batera, aldi berean, sartuko baita indarrean”

Zioak: Foru legeak, praktikan, gizarteratze-errenta berritik kanpo uzten ditu langabezia dau den eta prestazio nahiz sorospen guztiak ahituta dituzten pertsonak.

Parlamentu-talde Popularrak aurkeztutako osoko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

80. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko 2. ataleko bigarren lerroka da, honakoa dioena, kentzeko zuzenketa:

“Oinarrizko errenta modu koiunturalean jasozten duten pertsona hauei, inolaz ere “baztertu sozialak” ez baitira, gizarteratzean erabiltzen direnez bestelako tresnak eman behar zaizkie, tresna ahalik eta egokienak benetan eskatzen dutena lortzeko, laneratzea edo beren enplegu aukerak hobetzea alegia, eta pertsona horien egoera, beraz, foru lege honen aplikazio esparrutik kanpo dago”

Zioak: Foru lege proiektuak, praktikan, gizarteratze-errenta berritik kanpo uzten ditu langabezia dau den eta prestazio nahiz sorospen guztiak ahituta dituzten pertsonak. Parlamentu-talde Popularrak aurkeztutako osoko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

